

# Familiantzako gida

Hezkuntza




EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO





## Gida honetako mintzagaiak:

Haur Hezkuntza.....	6
Oinarrizko Hezkuntza: Lehen Hezkuntza .....	8
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Oinarrizko Lanbide Heziketako heziketa-zikloak .....	8
Ibilbide eta programak Oinarrizko Hezkuntzan: errefortzutik berariazko programetara .....	11
Batxilergoa eta Lanbide Heziketa .....	12
Ikastetxea ikasleen aniztasunari erantzuteko ardatza .....	12
Hezkuntzako Ikuskaritza eta Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak.....	13
Ikasleen berariazko premiak .....	14
Hezkuntza-zerbitzuak Hezkuntza-laguntzako Berariazko Premiak dituzten ikasleentzat .....	19



## Familia agurgarria:

Zuen seme-alaba Haur Hezkuntzan matrikulatzen duzuenean, ibilbide luze bat hasten duzue, hezkuntzako profesionalekin eta zuek bezalako beste familia batzuekin batera. Bide trinkoa izango da, zuen haurren hezkuntza bezalako prozesu zoragarrian.

Hezkuntza horren erantzule nagusiak zuek zarete, eta eskolak soilik lagundu egin dezake eraginkorragoa eta osatuagoa izan dadin. Ezin zaituztegu ordezkatu, ez da hori gure egitekoa, soilik lagundu egin dezakegu, bidelagun izan, zuen seme-alabek hezkuntza ahalik eta onena izan dezaten, bizikidetza positiboko testuinguru batean. Bertan, modu inklusiboan, hezkuntza-maila bakoitzean eskatzen den irteera-profila garatzen lagunduko zaie, alegia, oinarrizko hezkuntza bukatzean ikasle guztiek lortu behar duten garapeneko kompetentzia-maila lortzen. Horrek guztiak lagunduko dio ikasleari bere bizi-proiektua arrakastaz garatzen eta, bizitzan zehar, funtsezko kompetentzia horien bilakaeran jarraitzen, pertsona definitzen duen elementu garrantzitsuenetariko bat kontuan hartuta: aniztasuna. Pertsona guztiak gara desberdinak, beraz, gutako bakoitzari erantzutea da aukera berdintasuna bermatzeko erronka.

Gida honen xedea da hezkuntza nola antolatua dagoen modu ahalik eta laburrenean azaltzea, hau da, adieraztea zein diren etapa bakoitzeko ezaugarri eta mugarri garrantzitsuenak, zein diren trantsizio-momentuak (etapa batetik besterako aldaketak), zein diren erreferentziazko profesionalak, zein diren ikasleen beharrei hobeto erantzuteko aukera eskaintzen duten programak etab.


Gure hezkuntza-sisteman [derrigorrezko hezkuntza](#) eta [derrigorrezkoa ez den hezkuntza](#) bereizten dira. Lehen Hezkuntza ez da derrigorrezkoa. [Oinarrizko Hezkuntza](#), Lehen Hezkuntzarekin hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 4. mailan amaitzen dena, nahitaezkoa da. Oinarrizko Lanbide Heziketako heziketa-zikloak Oinarrizko Hezkuntzan sartzen dira, Lehen Hezkuntzarekin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarekin batera.

[Lanbide Heziketa](#) eta [Batxilergoa](#) derrigorrezko hezkuntza ondokoak dira.

Nahitaezko hezkuntza ondoko etaparen barruan, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak [Helduarora Igarotzeko Programetan](#) sartzen dira. Desgaitasun moderatu edo larri bati lotutako hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei zuzenduta daude, derrigorrezko eskolaratzearen epea amaitzerakoan, Oinarrizko Lanbide Heziketan sartzen ez direnei. Gehienez lau ikasturtez joan daitezke ikasleak, normalean, 20 urte bete arte. Salbuespenak ere egin daitezke, eta baimena lortu eskolaratzea 21 urte arte luzatzeko.

## Familientzako gida


Hezkuntza



Helduarora Igarotzeko Programak bi motatakoak dira:

- a) Zereginen Ikasketa programak: desgaitasun intelektual moderatua duten ikasleentzako berariazko programak dira. Enplegu babestu bat edo laguntzadun enplegu arrunt bat egin ahal izateko kompetentzia berariazkoak eta zeharkakoak eskura ditzaketen eta laguntza neurritzkoen bidez komunitatean bizitza independentea garatzeko gai diren ikasleentzat izan daitezke.
- b) Autonomia Pertsonal eta Sozialerako programak: lanbide-zerbitzuak, egoitza-unitateak edo eguneko zentroak bezalako laguntza orokorrak beharko dituzten desgaitasun larria duten ikasleentzako berariazko programak dira, laguntza pertsonalak eskaintzen zaizkie autonomia eta ongizatea gara dezaten helduaroan.

Hezkuntza Saileko webgunean hezkuntza-sistemari buruzko informazioa hainbat hizkuntzatan duzue.  
[Hemen eskuragarria.](#)



# Unibertsitatez kanpoko ikaskuntza



**Hezkuntza EZ derrigorrezkoa**

- HAUR HEZKUNTZA

0-6 urte bitartean

**Derrigorrezko hezkuntza: OINARRIZKO HEZKUNTZA**

- LEHEN hezkuntza
- Derrigorrezko BIGARREN hezkuntza
- Oinarrizko Lanbide Heziketa

6-16 urte bitartean

**Hezkuntza EZ derrigorrezkoa**


- LANBIDE heziketa
- BATXILERGOA
- Helduarora Igarotzeko Programak

16 urtetik gora



## Familientzako gida

Hezkuntza



Hezkuntzari dagokion 2020-2030 europar esparruaren sei helburuetako bat betetzen du Euskadiko hezkuntza-sistemak, alegia, 4 urte eta derrigorrezko hezkuntza hasi bitarteko haurren % 95 Haur Hezkuntzan matrikulatzea. Estatuko batez bestekoa gainditu du, eta baita Europako herrialde gehienena ere. Euskadin eskolaratzea erabatekoa da Haur Hezkuntzako bigarren zikloan (3, 4 eta 5 urte).

Lehen Hezkuntza, hau da, 0 eta 6 urte bitarteko etapa da pertsonen neurogarapenerako bizitzako etapa garrantzitsua. Eraikuntza pertsonal eta sozialaren oinarriak finkatzen diren momentua da, egindako arreta-ahaleginek inpaktu handiagoa duten momentua, eta, [Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak](#) dioen bezala, paper garrantzitsua jokatzeko «haurraren ongizatean eta garapen kognitibo eta sozioemozionalean, eta Haur Hezkuntzan sartzeak lagun dezake inklusioan eta desparekotasun sozialak arintzen (2017)».


Haur Hezkuntzaren garrantzia agerian uzten du [UNESCOk](#) (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak), Garapen Jasangarrirako Agenda 2030ek helburu gisa baitu "bermatzea haur guztiek Haur Hezkuntzan eta eskolaurerako hezkuntzan kalitatezko arreta- eta garapen-zerbitzuak izatea, Lehen Hezkuntzarako prestatuak egon daitezen".

«Lehen Hezkuntzak garapen goiztiarreko atzerapenak konpentsa ditzake, errendimenduaren arrakala murriztu eta, bizitzan, aurreragoko desparekotasuna murriztu» (Heckman & Gertler, 2014).

Haur Hezkuntzan, gainera, Euskadiko hezkuntza-sistemak garatzen du [Arreta Goiztiarra](#) garatzen du, izaera integrala duen ekimena Foru Aldundiekin, Osakidetzarekin eta Hezkuntza Sailarekin lankidetzan.

**Garapenean nahasmenduren** bat duten edo izateko arriskua duten haurrei zuzenduta dago. Esku-hartze eredu honek aipaturiko hiru sistemetako profesionalen arteko koordinazioa errazten du.

Hezkuntza-esparruan, [Arreta Goiztiarra](#) litzateke 2 eta 6 urte bitarteko ikasleei zuzendutako esku-hartze multzoa. Garapenean nahasmenduren batetik edo arrisku biologiko edo psikosozialetatik eratorritako hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten haurrei eskaintzen zaie. Hezkuntza Premia Berezien aholkularitzako ebaluaketa psikopedagogikoaren bidez eskatu behar da. Eskolan detektatzen denean haur batek zailtasunen bat duela, berariazko



arreta bat eskaintze zaio, bere ikaskuntza-garapena baldintzatu ez dezan. Laguntza Zerbitzuek (Berritzegune) eskolei alor horiei buruzko aholkularitza eskaintzen diete.


Familiaz gain, eskola da ingurune naturala, eta bertan garapen-zailtasunei erantzuna ematea eraginkorragoa da eta jasangarriagoa denboran. Dena den, osasun-sistemaren (Osakidetza gure kasuan) eta Foru Aldundietako Gizarte Zerbitzuen esku-hartzerik gabe, kasu askotan ez lirateke erantzun egokiak emango, eta ez litzaieke arretarik eskainiko garapenaren dimentsio guztiei.

Hezkuntza-esparruan, Euskadiko Arreta Goiztiarrari buruz gehiago jakin nahi baduzue, [hemen](#) aurki dezakezue.


Garrantzitsua da adieraztea Haur Hezkuntzan, Arreta Goiztiarraren testuinguruan, 2, 3, 4, eta 5 urterekin, [Haurren Garapenaren Jarraipenerako Protokoloa](#) aplikatzen dela.

Protokolo hori soilik Euskadiko hezkuntza-sistemarena da. [Haurren Garapena Behatzeko Eskalaren](#) (HGBE) bidez, tutoreek balioesten dute ea haurren garapenak espero den ibilbidea jarraitzen duen. Ez dugu ahazten haur bakoitzaren garapen-erritmoa desberdina dela, hortaz, malguak gara, eta kontutan hartzen dugu haur bakoitzaren egoera balorazio horretan. Gainera, ez ditugu soilik garapeneko ustezko zailtasunak behatzen, baita Haur Hezkuntzako haurren artean adinaren arabera haietaz espero dena erraz gainditzen duten kasuak ere; goiztiartasun kasuak ere detektatzen dira.

Ikaskuntza-erritmo askotarikoek, alegia, motelagoek eta azkarragoek, pertsonen aniztasuna osatzen dute. Eskalaren bidezko behaketa egiten da ahalik eta azkarren esku-hartzeko, frogatuta baitago eraginkorra dela garapeneko zailtasunak konpentsatzeko eta ikasketa-erronka handienen eskariari aurre egiteko. Modu horretara jokatzuz soilik lortuko dugu eskola denontzako dela dioen printzipioa betetzea. Dokumentu honetan aipaturiko Eskalei buruz informazioa dago txertatuta.







Aipaturiko behaketa 4 eta 5 urtekoei azaroan eta abenduan egiten zaie, eta 2 eta 3 urtekoei, otsailean eta martxoan, [Garapenaren Ohiko Zaintza](#) deiturikoa. Ikasturte hasieran, tutoreek jakinaraziko dizue nola egingo den eta zuek nola parte hartuko duzuen, prozesu guztian parte hartzeko eskubidea eta betebeharra baituzue, baita beharrezkoa denean erabakiak hartzeko eskubide eta betebeharra ere.

Haur Hezkuntzaren ostean, zuen alaba edo semea [Lehen Hezkuntzan](#) hasiko da, lehen aipatu bezala, [Oinarrizko Hezkuntza](#) deiturikoan.

[Ver Escalas](#)

## Oinarrizko Hezkuntza: Lehen Hezkuntza


### Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Oinarrizko Lanbide Heziketako heziketa-zikloak

Hezkuntza-etapa horien helburua da ikasle guztiek oinarrizko konpetentziak garatzea bizi autonomo, arduratsu, sozial eta parte hartzaile baterako. Ikasle guztien hezkuntza-eskubidea bermatzen da, eta helburua da pertsona bakoitzak ahalik eta garapen handiena lortzea, hau da, ikasle guztien konpetentzien eta autonomiaren garapen-maila handiena.


Honako eskema honetan ikus dezakegu, azaletik, hezkuntza-sistemaren egitura.

## Familientzako gida

Hezkuntza







Lehen Hezkuntza, kasu gehienetan, 6 urterekin hasten da, baina gerta daiteke bizitzako etapa honetan (0 eta 6 urte bitartean), zenbait hurrek larritasun maila askotarikoak dituzten zailtasunak izatea eta gomendatzea Lehen Hezkuntzaren hasiera atzeratzea. Noiz hartu behar dugu aintzat hasiera hori atzeratzeko aukera? Hezkuntza-premia berezietatik eratorritako neurogarapeneko nahasmenduak dituzten haurren kasuetan.

Gerta daiteke ikasle batek konpetentzia paregabeak erakustea eta gomendatzea derrigorrezko hezkuntza lehenago hastea ere.

Dena den, desagaitasunen bat dagoen kasu guztietan edo ez ohiko gaitasunen bat detektatzen den bakoitzean, ez da derrigorrezko eskolatzea atzeratzen edo aurreratzen.

Mota honetako erabakiak ezin dira automatikoak izan. Beharrezkoa da balioestea baldintza pertsonal horiek zer-nolako eragina duten ikasleen konpetentzien ikasketan eta garapenean. Pertsona bat eta beste bat ez dira berdinak. Baldintza pertsonal zehatz batzuk berberak izan arren, beharrak oso anitzak eta intentsitate askotarikoak izan daitezke.

Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (Oinarrizko Hezkuntza) bi etapa oso desberdinak dira, eta baita horietako bakoitzeko ikasleak ere (batzuk haurrak dira eta besteak, nerabeak). Hala ere, hezkuntzaren ikuspegitik, batik bat, landu beharreko funtsezko eta berariazko konpetentziak aldatzen dira: nola egiten den, zenbaterainoko parte hartzea duten ikasleek beren ikaskuntza, eta, azkenik, konpetentzia horietatik espero den garapen-maila.


Badakigu ikasle guztiek ez dutela modu eta erritmo berean ikasten, beraz, gerta daiteke bi aldiz gehienez errepikatzea ikasturtea Oinarrizko Hezkuntzan, eta, kasu horietan, 18 urterekin amaitzea. Modu berean, Oinarrizko Hezkuntzaren aldia murriztu daiteke adimen gaitasun handiko ikasleak baldin badira.

Oinarrizko Lanbide Heziketako heziketa-zikloak:

Oinarrizko Lanbide Heziketako heziketa-zikloak Oinarrizko Hezkuntzan sartzen dira, Lehen Hezkuntzarekin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarekin batera.

Lanbide Heziketako prestakuntza-eskaintza osatzen dute, Erdi Mailako eta Goi Mailako Heziketa Zikloekin batera.

Nagusiki, ikasketa profesionalekiko jakin-mina erakusten duten ikasleei zuzenduta daude eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako konpetentziak lortzeko eta ikasteko aukera gehiago mundu profesionalari lotutako ingurune batean dituztenak.



Oinarrizko Lanbide Heziketan sartzeko, honako ezaugarri hauek guztiak bete behar dira:

- a) Ziklora sartzen direnean, hamabost urte beteta izatea edo urte natural horretan betetzea.
- b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailako ikasketak eginda izatea.  
Salbuespenak ere egoten dira: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila egin ostean ere sar daiteke.
- c) Orientatzaile kontseiluan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleriaren gomendio bat jaso izana.

Oinarrizko Lanbide Heziketako heziketa-zikloko modulu guztiak gainditzeak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradudun titulua eskuratzea dakar eta baita dagokion espezialitateko oinarrizko teknikariaren titulua ere, eskuratutako konpetentzia profesionalak egiaztatzen dituena.

## Ibilbide eta programak Oinarrizko Hezkuntzan: errefortzutik berariazko programetara


Oinarrizko Hezkuntzan ibilbide komun bat dago, ikasle gehienek jarraitzen dutena. Hala ere, batzuetan, beharrezkoa da aniztasunari hobeto erantzuteko programak garatzea: aniztasuna kulturari dagokionez, gaitasunei, orientazio sexualari, generoari, baliabide sozioekonomikoei... Beraz, gure ikasleen aniztasunari erantzuteko hainbat programa ditugu, adibidez:

### Aniztasunari erantzuteko programak

- Hizkuntza Indartzeko Programak (Eusle programa)
- Bidelaguna
- Hezkuntza Berariaz Sendotzeko programa
- Curriculum desberdineko programa
- Eskolatzeko Programa Osagarriak
- Eraldatzen programa

Hemen aurki dezakezu horiei buruzko informazio gehiago:

<https://www.euskadi.eus/programas-de-atencion-a-la-diversidad/web01-a3hinklu/es/>





## Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

Oinarrizko Hezkuntza amaitu ostean, ikasleek bi aukera dituzte, hezkuntza-sistemaren egiturak erakusten duen diagraman ikus daitekeen bezala: Batxilergoa eta Lanbide Heziketa.


Derrigorrezko hezkuntza ondoko etapan sartu ahal izateko, [Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Graduatua](#) eskuratu behar da. Ikasleak graduatua baldin badu, Batxilergoan edo Erdi Mailako Lanbide Heziketan sar daiteke. Ez badu titulua eskuratu, Oinarrizko Lanbide Heziketan sar daiteke eta han Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua eskuratu. Dena den, garrantzitsua da azpimarratzea momentu jakin batean derrigorrezko hezkuntza ondoko ikasketetan sartu ez daitekeen arren, horrek ez duela esan nahi, etorkizunean, beste sarbide batzuk erabiliz, sartu ezingo denik.

- [Batxilergoan](#) ordura arte eskuratutako ezagutzak sakontzen dira, pertsonen eta gizartearen arazoak konpontzeko erabiltzen dira, eta, modu berean, helduarorako prestatzen dira. Bi urte horietan, ikasleak goi-mailako ikasketetarako edo lan-munduan sartzeko prestatzen dira.
- Lanbide Heziketa lan-prestakuntzara eta -merkatura bideratuta dago. Prestakuntza bizitza guztia irauten duen prozesua da. Horrela, Lanbide Heziketaz mintzo garenean, ez gara soilik Oinarrizko Heziketa amaitzean gazteek egiten duten [hezkuntza arautuaz](#) ari, baita dagoeneko lanean ari diren edota [konpetentzia profesionalen errekonozimendua behar](#) duten pertsonentzako [enplegurako heziketaz](#) ere.

Deskribatutako ibilbideak ikasle gehienek egiten dituztenak dira. Bestalde, Euskadiko hezkuntza-sistemak beste erantzun batzuk ere eskaintzen ditu, bai Helduentzako Hezkuntza EPA eskolen bidez eta bai distantziara egiten diren hezkuntza formulak IVED bidez ( [Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutua](#) ).

## Ikastetxea ikasleen aniztasunari erantzuteko ardatza

Ikasleei erantzuteko ardatza da eskola. Euskadiko hezkuntza-sistemak laguntza-zerbitzu multzo bat dauka erantzun hori errazteko, baina hezkuntzaz kanpokoak dira, eta, beraz, beren jarduna soilik osa dezakete beren konpetentzien eta erantzukizunen testuinguruan.



Malgutasunez jokatzeko aldi berean da eskolaren erantzukizuna eta aktiboa, eta, horrela, ikasle guztien beharrei erantzun egokia eskaini ahal izango die.

Funtsezkoa da familiaren funtzioa, hortaz, eskolak kontuak izan beharko du hezkuntza-prozesuan parte hartzeko eta inplikatzeko, eta ikasleei lagunduko die haien autonomia ahalik eta gehien garatzen, ulertuz hori dela modu onena etorkizuneko erronkei aurre egingo dien pertsonak eskuratzen laguntzeko.

## Hezkuntzako Ikuskaritza eta Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak

**Hezkuntzako Ikuskaritzaren** egitekoa da kalitatezko hezkuntza-sistema bat eskuratzea eta hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsonen eskubideak bermatzen laguntzea.


Eskolak eta sistemako gainerako elementuak ikuskatzen eta ebaluatzen ditu, eta aholkuak ematen dizkie, hobetzeko helburuarekin. Sistemaren ebaluaketetan parte hartzen du, eta hezkuntzako administrazioari helarazten dizkio proposamenezko txosten tekniko bidez.

Laguntza-zerbitzuak, Berritzegune deiturikoak, eskolaz kanpoko zerbitzuak dira eta hezkuntza-aholkularitzan, -prestakuntzan eta -berrikuntzan laguntzen dute. Zerbitzu hori Euskal Autonomia Erkidegoko eskola guztietara iristen da, eskola publiko nahiz kontzertatuetara.

HPB aholkularitzak, bere aldetik, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen eskolaratze-, garapen- eta ikasketa-prozesu guztian esku hartzen du. Beharrezkoa da azpimarratzea eskolak hala eskatuta eta ikasleen beharrei erantzuteko bere gaitasuna hobetzeko helburuarekin soilik esku hartzen duela.

Hezkuntza-premia berezien esparruan beste zerbitzu batzuk ere baditugu:

- Ikusmen-urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabideak.
- Ospitaleko eta Etxeko Arretarako eta Arreta Terapeutiko-Hezigarrirakoa Zentroak



Eskola inklusibo baten testuinguruan, aniztasunari erantzuna emateko ikasle guztiek ikasteko eta parte hartzeko izan ditzaketen ustezko oztupoak gainditu behar dira. Horretarako, funtsezkoa da ikasleak ezagutzea eta haien beharrak detektatzea.

Ikasgelako tutoreek behatzen dituzte, lehenik eta behin, ikasleen hezkuntza-premiak, eta lehen balorazioa egiten dute. Batzuetan, diagnostiko kliniko batek hala eskatuta egiten da (bizitzaren lehen bi urteetan detektatutako desgaitasunen bat duen ikasleekin gehienetan horrela izaten da), baina, kasu guztietan, kontuan hartzen da ikasketa-prozesuaren bilakaera testuinguruan, alegia, eskolan eta ikasgelan.

Premia balioetsi ostean, irakasle-aholkulariaren laguntzarekin, haurrak aurrera egin ahal izateko neurriak planteatu behar dira. Lehenik eta behin, neurri unibertsalera jotzen da, besteak beste: arlo instrumentala berreskuratzeko ikasketa-taldeak, hizkuntza hedatuentzako (ikasgelan erabiltzen direnentzako) indartze-taldeak, irakaskuntza partekatua, ikasleen interesen arabera hezkuntza-lantegiak, esparruen arabera ikasgaiak antolatzea, talde kooperatibo eta elkarreragileak, indartze-programak...


Irakasle tutoreak, irakasle orientatzaile edo aholkulariarekin batera, ikasleen aniztasunari erantzuteko beharrezkotzat jo dituen neurri unibertsalak aplikatu dituenetan eta ez direnean nahikoak izan, orduan eska diezaioke [ebaluaketa psikopedagogiko](#) bat egitea Berritzeguneko Hezkuntza Premia Berezien aholkularitzari.

### Zein da ebaluazio psikopedagogikoaren helburua?

Ebaluazio horren helburua da hezkuntza-laguntzako berariazko premiak ba ote dituen ikustea. Diagnostiko kliniko batekin nahastu behar ez den ebaluaketa horri erantzuteko, aholkularitzak orientazioak eta aholkuak eskaini beharko ditu eskola-esparruan detektatutako hezkuntza-premiei erantzuteko neurri egokiei buruz.

### Zeinek hasten du ebaluazio psikopedagogikoa?

Ebaluazio honetara eramaten gaituen prozesua beti zentroan hasten da, hau da, tutoreak hasten du. Ikasle baten zailtasun pertsonalak edo ikasketa-zailtasunak behatu eta hartutako neurriek aurreikusitako emaitzak eman ez dituztela ikusitakoan, irakasle tutoreak, irakasle aholkulariarekin batera, HPB aholkularitzaren esku-hartzea eskatuko du.





Aholkularitza horrekin kasua aztertu eta beharrezko esku-hartzeak erabakiko dira, horien artean, ebaluazio psikopedagogiko bat, ez baldin bada behintzat ordura arte ikaslearen hezkuntza-premiak zehaztea lortu. Familiak baimena eman beharko du dokumentua sinatuz.

### **Familiak eska dezake egindako ebaluazio psikopedagogikoaren txosten bat?**

Familiak eskura dezake egindako ebaluazioaren eta haren ondorioen txosten bat. Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzan eskatu beharko du beti. Eskolek ez dituzte txosten horiek, eta HPB aholkularitzak soilik bidal ditzake Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak eskatzen dionean.


Bereziki babestutako datuak direnez, Hezkuntza Sailak, legez, horiek babesteko betebeharra du, horretarako egokitzat jotzen dituen neurriekin.

### **Ebaluazio psikopedagogikoaren ostean, zer?**

HPB aholkularitzaren ebaluazio eta orientazioaren ostean, [jarduketa-plan pertsonalizatu](#) bat ezarriko da. Plan horretan honakoak sar daitezke: sartzeko egokitzapena, esparru-egokitzapena, egokitzapen globala edo hedapen-egokitzapena.

- [Sartzeko egokitzapen](#) horiek aukera eskaintzen die HBP dituzten ikasleei ikasketetan "sartzeko", hizkuntza edo irakurketa-idazketatik eratorritako zailtasunek beren eskolako garapena eta garapen pertsonalaren aurrerakuntza oztopatu gabe.
- [Esparru-egokitzapenez](#) mintzo garenean, aldiz, adierazi nahi da ezagutza-esparru jakin bateko ikasketa laguntzeko beharra dagoela, ikasgelako programan finkatutakoaren arabera, atzerapen nabarmena dagoenean esparru horretan.
- [Egokitzapen global](#) batean, curriculumeko ikasgai gehienak egokitu behar dira, atzerapen esanguratsua baitago gehienetan edo horietan guztietan. Desgaitasun intelektual eta garapenezko beste batzuetako egoerekin erlazionatuta egoten da.
- Azkenik, [hedapen-egokitzapena](#) maila zehatz bateko curriculumua gainditzean aplikatzen da, eta komeni da ikasleak aukera izatea ikasketetan aurrera giteko. Adimen gaitasun handiko ikasleentzako neurri egokia izan ohi da.

[Jarduketa-plan pertsonalizatua](#), aldizka, berrikusi egingo da, normalean hiruhileko ebaluaketetan; tutoreak irakasle-taldearekin aurrerakuntzak berrikusiko dituzte, eta, hala badagokio, beharrezko aldaketa egin.



Oso noizean behin, laguntza pertsonalak eta/edo teknikoak ere badirenean, horiek jarduketa-planari egiten dioten ekarpena edozein momentutan berrikusi daiteke, baina araudiak dioenez, urteko lehen hiruhilekoan egin behar da, [aurreikuspenak](#) egitean, horiek oinarri hartuta planifikatzen baititu hezkuntza-administrazioak hurrengo ikasturterako giza baliabideak.

**Zertan datza laguntza?** Laguntza diogunean esan nahi du eskolak ikasleen aniztasunari erantzun ahal izateko hezkuntza-profesionalek erabiltzen dituzten testuinguru pertsonal, antolakuntzazko, material edo metodologikoaren edozein elementu.

Beraz, jende askok pentsatzen duenez oso bestela, laguntzaz mintzo garenean, ez gara soilik pertsonen edo adituen ari, baizik eta indartze-programa zehatz bati buruz, gela antolatzeko modu bat edo ikaslearen beharrei behar bezala erantzuteko berariazko material batzuei buruz.


Kasu gehienetan, beharrezko laguntzak [unibertsalak](#) izango dira, eta eragina izango dute eguneroko ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan; esku-hartzea irakasle-talde arruntari dagokio. Laguntza horiek prebentziozkoak dira, eta zailtasunak ahalik eta azkarren detektatzen eta oztupoak identifikatzen laguntzen dute, modu horretan, eskola-testuingurua ikasle bakoitzaren ezaugarrietara egokitu dezakete.

Beste batzuetan, neurri unibertsalak nahikoak ez direnean, laguntzak [berariazkoagoak](#) izan behar dira.

Azkenik, ikasleen premiei erantzuteko eskola-testuinguruan aldaketa nabarmenak eskatuko dituzten egoerak aurkituko ditugu.

17/2023 Euskadiko Hezkuntzaren Legean ageri da zein diren hezkuntza-laguntzaren berariazko premiak:

- Heldutasun-atzerapenak eragindakoak,
- Hizkuntza- eta komunikazio-garapeneko nahasmenduek eragindakoak,
- Arreta- edo ikasketa-nahasmenduek eragindakoak
- Ikasketetako hizkuntzarekiko ez-jakintasan larriak eragindakoak
- Gizarte, hezkuntza eta ekonomia alorretan egoera zaurgarrian egoteak eragindakoak
- Adimen gaitasun handiak eragindakoak
- Hezkuntza-sisteman berandu sartzeak eragindakoak
- Baldintza pertsonalek edo eskola-ibilbideak eragindakoak



Multzo horretan sartzen dira hezkuntza-premia bereziak ere.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak dira, eskolaratze-aldi batean edo eskolaratze guztian, zenbait berariazko hezkuntza-laguntza eta -arreta behar dituztenak, desgaitasunen batetik edo jokabide-nahasmendu larrietatik eratorritako egoerengatik.

### Ebaluazio psikopedagogikoak bestelako eskolaratze bat ekar dezake?

Oso noizean behin eta laguntza-premiak oso handiak direnean soilik (desgaitasun larrietara lotuak normalean), gomendatzen da [ikasgela egonkorrak](#) deiturikoetan eskolaratzea (laguntza trinkoko programak), horietan laguntzarako profesionalak ikasle horiekin soilik egoten dira. Horrek ez du esan nahi eskolako bizitzan parte hartzen ez dutenik. Eskolak inklusioarekin konpromisoa du, eta behartuta dago ahalegina egitera ikasle horiek ahal den jardueretan parte hartu eta espazioa adinkideekin parteka dezaten.


Ez da hain ohikoa [hezkuntza bereziko eskoletan](#) egiten den eskolaratzea (zerbitzu integratuetako programak). Eskolaratze hori soilik egiten da hezkuntza-premiak nabarmen gainditzen duenean eskaintzen den laguntza eta baita osasun-laguntza ere <sup>(1)</sup>.

### Ebaluazio psikopedagogikoak eragina izan dezake ikasturtea errepikatzeko edo ikasturtea aurreratzeko garaian?

Ikasturtea errepikatzeko edo aurreratzeko erabakia curriculumaren arabera hartzen da, hau da, maila edo etapa bakoitzerako curriculumak ezartzen dituen konpetentziak eta helburuak ikasleak eskuratzearen arabera.

Zenbait kasutan, ebaluazio psikopedagogikoa da erabaki hori hartzeko alde aurreko baldintza. Hori gertatzen da derrigorrezko eskolaratzearen hasiera atzeratzen (Haur Hezkuntzan egonda) edo aurreratzen denean. Ikasturtea aurreratzea Oinarrizko Hezkuntzan ere planteatu daiteke, adimen gaitasun handiko ikasleak direnean.

<sup>(1)</sup> Hezkuntza Premia Bereziak dituzten eta Hezkuntza Bereziko Eskoletan dauden ikasleen batez bestekoa % 2,30ekoa da (premia bereziak dituzten ikasleen guztizkoari dagokionez). [Euskadiko Hezkuntza Sistemaren Diagnostikoa \(2019\)](#). 53. or.






Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzari dagokio **baimena** ematea derrigorrezko eskolaratzearen hasiera atzeratzeko edo epe hori malgutzeko, eta horretarako oinarrian hartzen ditu Hezkuntza Premia Berezien aholkularitzak eta Hezkuntza Ikuskaritzak aurkeztutako txostenak.

Hezkuntza-ibilbidea haurren adina erreferentziazat duten mailatan antolatzen da, bakoitzaren banakako desberdintasunak aintzat hartuz. Hasiera atzeratzeak suposatzen du «**kontsumitzea**» oinarritzko hezkuntzan zehar ikasleak egin ditzakeen bi errepikapenetako bat. Horrexegatik, prozesu horrek ziurtatu behar du hartutako erabakia onena dela ikaslearen garapen pertsonal eta sozialerako eta ikaskuntza-garapenerako.

Honako diagrama honetan prozesu guztia laburbilduko dugu:



### Ebaluaketa psikopedagogikoaren prozesua

1. • **Irakasle tutoreak** behatzen ditu ikasketa-prozesuko zailtasunak.  
• **Beharrezko neurri** arruntak hartuko ditu.
2. • **Irakasle tutoreak** hartutako neurrien emaitzak baloratu eta **irakasle aholkulariaren** laguntza eskatuko du **bilakaera** eta **emaitzak** aztertzeko.
3. • Emaitzak ez badira positiboak, **HPB aholkularitzari** planteatzen zaio ebaluazio psikopedagogiko baten beharra.
4. • Irakasleek **familiarekin elkarrizketa** egiten dute ebaluazioaren zergatia adierazteko eta **baimena** eskatzeko.
5. • Ebaluazio egitea: **behaketak, elkarrizketak eta frogak**.
6. • Ebaluazioaren **ondorioak, orientazioak eskolari** eta neurri eta **laguntzen** proposamena.  
• **Familiarekin itzulketa**-elkarrizketa.
7. • **Jarduketa-plan pertsonalizatua**: ebaluazioa eta jarraipena.

# Hezkuntza-zerbitzuak Hezkuntza-laguntzako Berariazko Premiak dituzten ikasleentzat

## Zergatik mintzo gara zerbitzuez?


Nabarmendu nahi dugulako laguntza hainbat profesionalen jardutearen emaitza dela gehienetan, ez bakar batena, nahiz eta esparru horretan aditua izan.

Atal honetan baliabide pertsonalez soilik hitz egingo dugu. Dena den, hezkuntza-laguntzako berariazko premientzako Hezkuntza Sailak dituen zerbitzuak zein diren adierazi aurretik, hiru auzi argitu behar ditugu. Horrek lagunduko digu inklusio-laguntzei dagokionez nola funtzionatzen dugun hobeto ulertzen.

- Lehen auzia: behin eta berriz gauza bera esaten ari garela dirudien arren, bereizi egin behar dira [ohiko baliabideak eta berariazko baliabideak](#). Berariazko baliabide pertsonalek ohikoei laguntzen die hezkuntza-arretan. Jarraian adierazita dauden zerbitzuetatik bakar bat ere ez da eskaintzen modu eskusiboan berariazko baliabide pertsonalekin. Baliabide guztietan irakasle tutorea da lehen erantzulea bere ikasleen hezkuntza-ibilbidean. Beste modu batera esanda, irakasle tutoreak koordinatu behar ditu berariazko profesionalen jardunak, bere ikasleen kasuetan.
- Bigarren auzia: laguntza-premiak testuinguruaren araberakoak dira. Beste modu batera esanda, ikasle baten hezkuntza-premiak, edozein hezkuntza-etapatan dagoela ere, ingurunearen, profesionalen, parekoen, egitekoen, garapen-baldintzen eta halakoen araberakoak dira.

Beraz, zerbitzu zehatz bat zehaztu egin behar da, ez soilik hezkuntza-premiak identifikatzeko, baita laguntza eskainiko den eskola-testuinguruko elementu esanguratsuenak identifikatzeko ere. Horrexegatik, ezin da erlazio zuzen eta automatiko bat ezarri diagnostiko zehatz baten eta eskura dauden laguntza-baliabideen artean.

- Hirugarren auzia: laguntza-profesional batzuen lan-edukiari dagokio auzi hau. Hezkuntza-sistematik at dagoen norbaitek, beharbada, zailtasunak izan ditzake ulertzeko nola eskaintzen diren laguntza pertsonal eta teknikoak [Hezkuntza-laguntzako Berariazko Premiei](#) erantzuteko. Ulertzeko zailagoa gerta daiteke laguntzak pertsonen garapen-esparru berberari dagozkionean edo esku-hartze sozialeko beste sistema batzuetan –osasungintzan esaterako– kualifikazio berbera edo antzekoa duten beste profesional batzuk eskaintzen dituztenean. Hori gertatzen da fisioterapia eta terapia okupazionalarekin, alde batetik, eta, bestetik, Entzumen eta Hizkuntzako irakasleekin.



Ulertu beharra dago, titulazio bera duten profesionalak askotariko lanak egin ditzaketela lantokiaren arabera: osasun-sisteman, hezkuntzan, gizarte zerbitzuetan...

Aurrekoa aipatuta, Hezkuntza-laguntzako Berriazko Premiak dituzten ikasleen hezkuntza-zerbitzuen zerrenda aipatuko dugu.

## **Komunikazioa eta hizkuntza garatzeko laguntza**

**Komunikazio- eta hizkuntza-zailtasunak** dituzten ikasleei zuzendutako laguntzak dira.

HPBak dituzten ikasleen komunikazio- eta hizkuntza-garapenera bideratutako hezkuntza-jarduketa guztiez mintzo gara, modu horretan, gainerako ikasle guztiekin batera, esparru horretan, ahalik eta garapen handiena eskuratu ahal izateko. Bereziki, ikasketa-ingurune naturaletan egiteko jarduketa da (ikasgela arruntean eta jolastokian) eta, nagusiki, komunikazioaren erabilera sustatzen da.


**Sarbidea:** Hezkuntza Premia Berezien aholkularitzaren ebaluaketa psikopedagogikoaren bidez egiten da, eta osa daiteke, aholkularitzak egoki baderitzo, Entzumena eta Hizkuntzako irakaslearen balorazio batekin.

## **Oinarrizko kompetentziak garatzeko laguntza**

Zailtasun kognitibo, sensorial eta psikikoak nahiz ikasketaren oinarrizko prozesu psikologikoan zailtasunak dituzten ikasleei zuzendutako zerbitzua da.

HPBak dituzten ikasleen oinarrizko kompetentzien garapenari bideratutako esku-hartze multzo bat da, eta Haur eta Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aplikatzen dira. Azken kasu horretan, betiere, curriculum-erreferentzia aurreko etapatan baldin badago edo curriculumerako sarbidea errazten baldin badu. Ikasketaren testuinguru eta prozesu naturaletan gauzatu behar da.

Ikasleen beharren arabera finkatuko dira helburuak, haien adina eta hezkuntza-maila aintzat hartuz.





Honako profesional hauek eskainiko dute zerbitzu hori: irakasle tutoreak, Entzumen eta Hizkuntzako irakasleak eta Laguntza Irakasleak (PT). Azken horren esku-hartzea irakasle tutorearenaren osagarri izango da, eta lankidetzatestu-guru batean egin beharko da.

Komeni da berriro ere gogoraraztea Entzumena eta Hizkuntzako irakasleak hizkuntzaren eta komunikazioaren esparruan adituak diren irakasleak direla. Irakasle-profila dute. Sarritan, logopedekin nahasten ditugu, eta horiek osasun-esparruko profesionalak dira, bestelako profil profesional bat dute.

**Sarbidea:** Hezkuntza Premia Berezien aholkularitzaren ebaluaketa psikopedagogikoaren bidez egiten da, eta osa daiteke, aholkularitzak egoki baderitzo, Entzumena eta Hizkuntzako irakaslearen edo beste profesional aditu batzuen balorazioarekin.


### Oinarrizko kompetentziak eskuratzeko laguntza

**Itsutasun edo ikusmen-desgaitasun batetik eratorritako zailtasun sentsorialak dituzten ikasleei** zuzendutako zerbitzua da. Itsutasun larritzat jotzen da ikusmen-zolitasunak 0,4ko portzentajea duenean edo ikus-eremua 20koa denean (OMEren baremoen arabera) eta Hezkuntza Sailaren eta ONCEren lankidetzat-hitzarmenaren zuzendaritza-batzordeak definitutako ikusmen-desgaitasuna. **Gorrieria edo entzumen-urritasunak eragindako zailtasun sentsorialak dituzten ikasleei** ere zuzendutako zerbitzua da (mediku-txostenean adierazitako 40 dB-tik gorako galera dutenak elkarrizketa-maiztasunetan).

Ikusmen-urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabidetegiaren (IBT) laguntza eta aholkularitza izango dugu, eta, modu berean, gorrieria duten ikasleen arretarako taldeen aholkularitza. Horien erreferentzia zonaldeko Berritzeguneak dira. Kasu guztietan, zailtasun sentsorialetatik eratorritako edozein motatako hezkuntza-premia bereziak detektatzen, diagnostikatzen eta arreta eskaintzen laguntzen dute.

Honako hauek dira zerbitzu horien helburuak:

- Ikusmen- edota entzumen-desgaitasunen bat duten ikasleen hezkuntza-inklusioa lortzea, bai eskolan eta bai gizartean.
- Hezkuntza-profesionalei eta -komunitateari aholkularitza eskaintzea.



- Ikusmen-desgaitasuna, itsutasuna edota entzumen-desgaitasuna, gorreria duten ikasleen irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua erraztea.
- Ikusmen- edota entzumen-desgaitasunen batetik eratorritako hezkuntza-premiak dituzten ikasleen familiei aholkularitza eskaintzea.

Honako profesional hauek eskaintzen dute zerbitzu hori:

- Ikusmen-desgaitasuna duten ikasleei laguntzeko teknikari adituak
- Ikusmen-desgaitasuna duten ikasleentzako laguntza-irakasleak
- Gorreria duten ikasleei laguntzeko irakasleak (hor sartzen dira PT irakasleak; DBHn eta derrigorrezko hezkuntza ondokoan, aldiz, laguntzarako irakasleak).
- Entzumena eta Hizkuntzako irakasleak, aurrez aipaturiko komunikazio eta hizkuntzarako garapenaren laguntza-zerbitzuan.


**Sarbidea:** IBTrekin edo gorreria duten ikasleen koordinakundearekin lankidetzan, Hezkuntza Premia Berezien aholkularitzaren ebaluazio psikopedagogiko bidez sartuko dira.


### **Autonomia garatzeko eta oinarrizko konpetentziak eskuratzeko laguntza**

**Autonomia pertsonal eta sozialaren esparruan eta oinarrizko konpetentziak eskuratzeko zailtasunak eta beharra** duten ikasleei zuzenduta dago. Oinarrizko gaitasunen artean zailtasuna honako esparruetan egon daiteke: mugimenduan, autonomian, osasunean eta segurtasunean, autoerregulazioan eta komunitatearen erabileran. Itsutasunak edo itsutasun-gorreriak eraginda curriculumean sartzeko zailtasunak dituztenei zuzendua, era berean.

Ikasleen beharren arabera finkatuko dira helburuak, haien adina eta hezkuntza-maila aintzat hartuz. Dena den, honako hauek izango lirarteke funtsean:

- Eskolako bizitzan behar duten ikasleei curriculumean sar daitezen eta parte har dezaten erraztea.
- Moldatzeko trebetasunak –alegia, komunikazioa, norberaren zaintza, etxeko bizitza, trebetasun sozialak, komunitatearen erabilera, autoerregulazioa, osasuna eta segurtasuna, lana eta aisia eta denbora librea– garatzeko





programak diseinatzen eta horiek martxan jartzen laguntzea, arretaren ardura duten irakasleen lankidetzeta eta ikuskaritzarekin.

Honako profesional hauek eskainiko dute zerbitzu hori: Hezkuntza-laguntzako adituak edo zeinu-hizkuntzako interpreteak eta itsutasun-gorrieriaren bitartekariak (ONCErekin adostutakoa).

Laguntzarako profesional horien esku-hartzearen helburua da berdintasuna ziurtatzea, ikasle horiek ikasketa-prozesua gauzatu ahal izateko, zailtasun bilakatzen diren oztopoak saihestuz. Mugimendu-zailtasun larriak dituzten ikasleen kasua da, adibidez, laguntza profesionala beharko baitute ikasgelan, patioan edo eskolatik kanpo programatutako jardueretan.

**Sarbidea:** Hezkuntza Premia Berezien aholkularitzaren ebaluazio psikopedagogikoaren bidez sartuko dira. Zeinu-hizkuntzako interpretearen kasuan, HPB aholkularitzak gorrieria duten ikasleen koordinakundearen laguntza izan dezake.

### **Gaitasun funtzionalak garatzeko eta curriculumean sartzeko laguntza**

**Mugimenduaren garapenean zailtasun bereziki larriak** dituzten ikasleei zuzendutako laguntza. Ikasle horiek curriculum arruntean sartzeko zailtasuna eragiten duen hezkuntza premia bereziak dituzte eta zailtasun horiek beren lana egin ahal izateko esparru edo elementuetan nabarmendu egiten dira (eskuak nahiz eskolako ohiko tresnak erabiltzeko garaian, egunerokotasuneko oinarrizko jardueretan, komunikazioa eta ordenagailua erabiltzeko garaian, ergonomian eta parte-hartze sozialean). Era berean, mugimendu-desgaitasun larriak eta hezkuntza premia bereziak izan eta berariazko curriculumean sartzeko zailtasunak dituztenei zuzenduta dago.

Hezkuntza-esparruan profesional horren egitekoa da aipaturiko ikasleei **oztopoak kentzea** mugimendu-gaitasuna gara dezaten, postura kontrolatu eta curriculumean sartzeko eta autonomiarako trebetasunak eskuratzeko. Irakasle eta hezkuntza-langileekin lankidetzan aritu beharko da ikasleek garatu ahal izateko eskola-inguruneke beren independentzia areagotzeko trebetasun funtzionalak.

Hezkuntza-testuinguruan, zerbitzu hori, funtsean, bi figura profesionalek eskaintzen dute: terapeuta okupazionalak eta fisioterapeutak. Profesional horien egitekoa izan beharko litzateke aipaturiko ikasleei oztopoak kentzea mugimendu-gaitasuna garatzeko eta posturaren kontrolerako, eta curriculumean sartzeko eta autonomiarako trebetasunak eskuratzeko. Irakasle eta hezkuntza-langileekin lankidetzan aritu beharko da ikasleek garatu ahal izateko eskola-

inguruneko beren independentzia areagotzeko trebetasun funtzionalak. Jarduketa bideratzailea da, ez errehabilitatzailea. Aukera eskaini behar die ikasle horiei eskolara joateko, han egon eta gainerako ikaskideekin batera ikasteko.

**Sarbidea:** Fisioterapeutaren eta terapeuta okupazionalaren lankidetzarekin, Hezkuntza Premia Berezien aholkularitzaren ebaluazio psikopedagogikoaren bidez sartzen dira.


### HPBak dituzten ikasleentzako beste hezkuntza-zerbitzu batzuk

- **Hezkuntza-laguntza eta laguntza terapeutikoa**, medikuak hala aginduta, eskolara joan ezin daitezkeen ikasleentzat, **ospitale** baten ingresatuta dagoelako, **etxeko ospitaleratzean** dagoelako edo **programa terapeutiko-hezigarri** batean dagoelako.

Haur Hezkuntzaren kasuan, soilik ospitaleko arreta dago.

- **Irakasle tutoreari eta irakasle-taldeari aholkularitza eta laguntza:** HPBak dituztenen ikasleen arretaren koordinatzailetzat jotzen diren irakasle aholkulariak eta irakasle orientatzaileak eskaintzen duten zerbitzua da.
- **Irakasleentzako kanpo aholkularitza:** ebaluazio psikopedagogikoa, HPBak dituzten ikasleentzako esku-hartze eta jarraipen-proposamena (HPB aholkularitzak eskaintzen duen zerbitzua da).

Euskadiko hezkuntza-sistemari buruzko informazio gehiago [hemen](#).



Edizioa: 1.a, 2024ko ekaina • © Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Hezkuntza Saila •  
Internet.: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) • Editorea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
(Donostia-San Sebastián. 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz).

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco